



## INFORMAZIO-OHARRA

**Gaia:** 20/2012 ERREGE DEKRETUA APLIKATZEA ESTATUKO FUNTZIONARIO ZIBILEN GIZARTE SEGURANTZAREN ERREGIMENeko LANGILEEI (MUFACE) ALDI BATERAKO EZINTASUN-EGOEREI DAGOKIENEZ.

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreara atxikitako pertsonalari, orain arte, 9/2012 dekretuan agertzen den aldi baterako ezintasunaren osagarrien erregulazioa aplikatu zaio.

**Uztaileko** nominan, aldi baterako ezintasunaren inguruko berariazko araudia aplikatuko zaie MUFACEko langileei.

A.- Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 9. artikuluan aurreikusitako neurriak, lege-dekretu horren hamabosgarren xedapen iragankorraren eta hemezortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, **2012ko urriaren 15etik aurrera hasitako** aldi baterako ezintasun-prozesuei aplikatuko zaizkie.

2012/10/15aren aurretik hasitako aldi baterako ezintasun-prozesuei, ezta gaixoberritzei ere, ez zaie aplikatuko aipatutako 9. artikuluko horretan aurreikusitako ordainsarietako kenketa.

B.- Dagokion araudian ezarritako neurriek ukitutako aldi baterako ezintasun-prozesuen kasuetan, **ordainsarien portzentaje** hauek jasoko dira:

- Lehenengo hiru egunetan, ordainsarien % 50.
- Laugarren egunetik hogeigarrenera arte, biak barne, % 75.
- Hogeita batgarrenetik aurrera, hura barne, % 100.

C.- MUFACEko langileek **ordainsarien % 100 jasoko duten kasuak**

Urtarrilaren 31ko 9/2012 Dekretuaren bidez eta [2012ko otsailaren 15eko Instrukzioan](#), Administrazio honek ordainsarien % 100 jasoko ziren kasuak zehaztu zituen. Honako hauek dira:

1.- Erditze, adopzio, harrera, aitatasun, haurdunaldiagatiko arrisku eta edoskitzealdi naturalak iraun bitarteko arriskuagatiko baimenak.

2.- Aldi baterako ezintasunagatiko baimena:



- a) Lanbideko gertakizunengatiko prozesuak (lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak)  
b) Gertakizun arruntengatiko prozesuak, honako kasu hauetakoren bat gertatzen denean:

- Ospitaleratzea
- Ebakuntza kirurgikoa
- Larrialdietan egotea
- Ebakuntza mediko inbasiboak
- Kontingentzia arruntengatiko aldi baterako ezintasunak, haurdunaldiaren ondoriozkoak

3.- Aurreko kasuetako ordainsarien % 100 jasotzeko, Gizarte Segurantzako erregimen orokorreko langileentzat eskatzen diren **dokumentu berberak aurkeztu** beharko dira. Behin dokumentu horiek aurkeztuta, Gizarte Segurantzako erregimen orokorreko langileentzat ezarritako prozedura jarraituko da.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 26a

#### LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Sinatua: Konrado Mugertza



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA